

Euskadiko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektorialaren Berrikuspena eta Egokitzapena

2. FASEA



Sektore profesionalaren parte-hartze
prozesuan jasotako proposamen eta
ekarpenen itzulketa

Sarrera

Dokumentu honek Euskadiko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) Berrikuspen eta Egokitzapenaren esparruan egindako **sektore profesionalaren parte-hartze prozesuaren itzulketa fasea osatzen du**. Parte-hartze saioan bildutako ekarpen-fitxak jaso eta aztertu ondoren, Euskal Trenbide Sarearen (ETS) talde teknikoak banan-banan berrikusi ditu herritarrek planteatutako iradokizun, kezka eta proposamen guztiak.

Itzulketa honen helburu nagusia ekarpen bakoitzari erantzun garden, argi eta teknikoki justifikatua ematea da, azpiegituren plangintza-prozesuaren jarraipena errazteko. Informazioa modu ordenatuan egituratzeko, jasotako proposamenak bi taula bereizitan sailkatu dira:

- **LPSan sartzeko aztertuko diren proposamenak**
Idazketa-fasearen barruan aztertzeko bideragarritzat jotzen diren ekarpenak biltzen ditu, lehen mailako azterketa tekniko eta estrategiko baten ondoren. [Ekarpen batzuetan, LPSan sartzeko irismena argitzen duten oharrak sartu dira.](#)
- **LPSan sartzeko aurreikusten EZ diren proposamenak**
Azterketa teknikoa egin ondoren baztertutako proposamenak biltzen ditu.

Tauletan agertuko dena

Proposamenak aipatzen duen
trenbide-sarea

-  Zabalera konbentzionala
-  Zabalera metrikoa
-  Tranbia
-  Logistika eta merkantzien sarea
-  AHT
-  Proposamen orokorrak



Aztertuko EZ diren proposamenen kasuan hurrengo informazioa argitzen da, planaren xede ez izateagatik (eskaria dagokion erakundeari bideratzen lagunduz) edo bideragarritasun teknikoaren irizpideei erantzuten ez dielako baztertuko den ulertzeko:

LPSaren eskumenekoa al da?

-  Bai
-  Ez

LPSan sartzeko aztertuko diren proposamenak


		Proposamena	Oharrak
Gipuzkoa		Irun-Ventas-Colon bikoizketa. Funtsezko garapena da Irungo hiriarentzat, trenbidearen egungo egoerak eragiten diolako.	PTSan kontuan hartuko da. Irungo Bentak eta Kolon arteko bikoizketa ETSren trenbide-sarearen ahalmena eta funtzionaltasuna hobetzeko jarduketa gisa aurreikusten da.
Gipuzkoa		Intermodala Pasaiaren inguruan (intermodalaren plataforma kokalekua aztertu). Izan ere, hazteko gaitasuna ematen dio portuari eta trenbide bidezko logistika jasangarriagoa ahalbidetzen du.	Pasaiako portura trenbidez sartzeko eta intermodalitatea hobetzeko azterketa aurreikusi da.
Orokorra		Lehen aipatutako porturako trazadura- eta sarbide-aukerak garrantzitsuak dira lehiakorrak izan daitezkeelako. Funtsean trazadura laburrak direlako, baina baita malda txikiak dituztelako ere (salgaien trafikoan garrantzitsuak direnak, salgaien pisuagatik; bereziki gurea bezalako siderurgia-portu batean).	Trazadura-alternatibak eta portuetarako trenbide-sarbideak aztertzen dira, haien luzeera, maldak, edukiera eta salgaien garraiorako lehiakortasuna kontuan hartuta.
Orokorra		Bideen bikoiztea eta saihezbideak. Izan ere, bestela, trenbideak ez du gaitasunik merkantzien garraioa handitzeko. Porturako sarbideak aztertu litezke.	PTSak bide-banaketa eta saihezbideak jasoko ditu, sarearen edukiera handitzeko eta portuetarako trenbide-sarbideak hobetzeko.
Orokorra		Barnealdeko industria-guneetako geroak portuarekin trenbide bidez lotu ahal izateko gaitzeko azterketa egitea. Izan ere, trenbidez garraiatutako salgaien kopurua handitu lezake.	Zenbait aukera aztertuko dira LPSan sartzeko.
Orokorra		Karga sortzen duten zentro handiekin lotzeko adarrak. Trenbidea eta itsasontziaren arteko intermodalitatea errazteko, ingurumen-jasangarritasunean irabaziz.	
Orokorra		Aprobatutako azpiegitura-obra nazioarteko zabalera gehitzen joateko, batez ere porturako sarbideetan. Izan ere, trenbidea kamioia baino lehiakorrakoa da ibilbide luzeetan, eta, beraz, nazioarteko trafikoa apustu garrantzitsua izan liteke trenbideko merkantzia-trafficoa handitzeko. Portuko salgaien saihezbidearen trazadura aztertu liteke.	Lurralde Plan Sektorialean txertatzeko aztertuko da.
Orokorra		Zabalera-aldagaien kokapenaren azterketa, euskal Y-a salgaietarako erabiltzeko aukera kontuan hartuta. Trenbide-sarearen arteko elkarreragingarritasuna bultzatzeko, nahiz eta material mugikorra egokitzea eta salgaiek AHTren bidea erabiltzea zaila izan.	Lurralde Plan Sektorialean txertatzeko aztertuko da.
Orokorra		Zabalera bikoizteko trenbideen eskaria aztertzea, nazioartekoa barne. Izan ere, nazioarteko zabalera, iberikoarekin eta ETSrenarekin batera ezartzen ari da portuaren inguruan, eta horrek zuzenean konektatzen gaitu Europarekin.	Lurralde Plan Sektorialean txertatzeko aztertuko da.



LPSan sartzeko aurreikusten EZ diren proposamenak

Proposamena		LPSaren eskumenekoa al da?	Oharra
Bizkaia	Bilboko porturako Hegoaldeko Trenbide Saihesbidea. Haren gauzatzea arindu, Olabeagatik Bilbora sartzea saihestuz eta 2. fasearekin jarraitutasuna emanaz. Bilbo-Santurtzi tartearen salgaiak eta bidaiariak bereiztea bere funtsa hobetzeko dituen ondorioengatik.		Hegoaldeko Trenbide Saihesbidearen gauzatzea bizkortzea erakunde eskudunei dagokie. Lurralde Plan Sektorialak behin betiko onartzen den konponbidea jasoko du.
Orokorra	Garapenak baliozkotzeko proba-eremua. Gutxienez 2 km. Euskadi trenbide-ikerketaren munduko gorenean jartzeko.		Trenbide-garapenak baliozkotzeko proba-eremu bat sortzeak ikerketa- eta berrikuntza-helburuei erantzuten die, eta ez da trenbide-lurraldearen plangintzako jarduerarik.
Orokorra	Vertipuertoekin integratzea. Dron bidezko balio handiko garraioarekin elkarrenergina kontuan hartzea. Dron bidezko balio handiko garraioa laster iritsiko den zerbait da eta ezin gaitu ezustean harrapatu.		Portu mota honen integrazioa eta dron bidezko garraioa beste garraio bide batzuei dagozkie eta LPSaren trenbide-plangintzaren eremutik kanpo geratzen dira.





MUGIKORTASUN
JASANGARRAREN SALA
DEPARTAMENTO DE
MOVILIDAD SOSTENIBLE